

## Hitzaurrea: Orotzaipeña bizi

---

Bere izenburuari erantzun ona emanaz, amarkadaren gaiak osatzen du *Argazkiak V. 1961-1970* liburua. Nere adiñekoarentzako benetan garrantzitsua izan genduan garaia. Amar-urte ortan ez giñan oso umeak, sasoiko gizon gazteak baizik. Anai arteko guda tamalgarriak ekarri zigun illerriaren benetako ixiltasun otza gaintzen giñuazen, espetxeak zerbait arinduak arkitzen ziren eta erbesteko abotsak –auek ez gutxi ere– geroz eta indar garbiagoarekin entzuten. Erri bat dekretoz ez bai da mututzen eta gutxiago iltzen, eta au berretsiseko esan dezagun Euskalerrria ez dela berpiztu, baizik eta pixkanaka eta etenik gabe satorraren antzeko jokabidea erabat txokoratu gabe, bere burua, bere nortasuna, agertzen asia dela, geroz eta geiago azalduz eta nabarmenduz. Eta au gizarte mailla osoan nabaritzen zen, eremu sozio/politikoan, kultura-arlo zabalean, etabar.

Ezin esan gabe utzi gure artean iruroigarren urtea ez zela benetan oso modu onean sartu, ez alajaiña!, baizik gertakizun benetan tamalgarri batekin. 1960.eko martxoa zen Jose Antonio Agirrerren bizi emankor aberatsa itzali zenean. Makiña bat naigabe igaro ondoren, Eusko Jaurlaritzako 1een Lendakariaren biotz tanpada gelditu egin zen. Jose Antonio Agirre Lekube, benetan izen onekoa, gizon itzal aundikoa eta maitatua.

Garrantziko dekada dugu au. Euskalerrria bere Unibertsitatea lortu naiean kezkatua arkitzen zen, ardura zar bati jarraituaz. Oroi gaitezen noizkoa zen Jesus Maria Leizaolaren eskabidea. Errealitatearen arloan egiaztu zitekean ikastolen arazoa. Utsaren laguntzarekin eta eragozpen guztiz latzak gaindituaz, beren derrigorrezko apaltasunaren barnean fruitu ez nolanaikoak ematen ari ziren eta ate leioak zabalduaz abiera berrian indartuz zijoazen. Aldi berean, leengo ekintza oiñarri edo eredutzat artuaz, gaur bat eta biar bestea, an-emenka, gure inguruan ikastola berriak sortuaz, euskal giroa suspertuaz, zabaldu eta sakonduaz, erriaren naiari erantzuna ematen saiatzen ziren.

Ariari jarraituaz, Lazkaoko beneditarren artean eta Arantzazu inguruan euskal izkuntzaren giroa eta ikastetxeak bizi-bizirik arkitzen ziren. Arantzazuko leku menditsu artan 1969. urtezkeru ikus dezakegu aurrez-aurre Jorge Oteiza irudigille adiskidearen Apostoluak izena daraman irudigintzako lan deigarria. Leku arritsu artan, arriak arria ederturik, gogoratuko gera gu eta gure ondorengoak Euskalerrrian izan ditugula irudigille apartak.

Izkuntzaren gaillurrean Euskaltzaindia. Amar-urte ontan ortografiako arazok, izkuntza idatziaren batasuna dela-ta, sortu zen naiko eztabaida. Idatziasarrreak, billera aspergarriak, egun zorionez baretuak; baiñan Euskaltzaindia beti bere lekua betetzen, izkuntza arazoaren arlo askotan lanean, bere ekintzaren onartzea publikoki zabalduaz. Gaurko ikuspegitik begiratuta ezin uka bitxi xamarrek iruditzen zaizkigula *Zeruko Argia*, *Goiz Argi* etabarretan argitaratu ziren lan batzuek, ots, garaien garaiko gauzak irakurtzea. Betiko leloa.

Astekari auek aipaturik esan dezagun liburu argitaratzeak arrakasta baten asiera ezagutu zuala, urte aietan. Bi ikuspegi orokor xamarretan mugatuaz 1969. urtean *Pueblos de Guipuzcoa* izena daramaten lanen barnean argitaratzen da Gipuzkoako errien aurreneko *Monografía* sorta, Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren eskutik, eta 1970. urtean kaleratzen du Auñamendi Argitaratzeak *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*-ren aurreneko alea.

Amarkada ontan ezin aaztu ikerketa arloko ekintza. Jose Migel Barandiaran itzulia zen erbestetik eta bakarrik edo Aranzadi Natur Zientzi Elkartearen barnean lan taldeak osatuaz, ondoren iteresgarriak lortu zitu Etnografia eta Prehistoria mailan. Emen ezin dugu ixildu Manuel Lekuonaren izena, eta berarekin ikerketa auen barnean etenik gabeko jarraipenean beren lanak argitaratu zituzten egilleak, adibidez, Jesus Altuna; Julio Caro Baroja, Fermin Leizaola; Luis-Pedro Peña Santiago; Juan San Martin; Jose Mari Satrustegi, Juan Antonio Urbeltz etabar luze bat.

Utzi dezagun letra, baztatu ditzagun orri idatziak eta liburuak. Euskera jalgi adi plazara, eta plazan eta euskera erritarrean abestuz mintzatzen zaigu bertsolaria, itz-etorri arrigarriarekin. Nun da festa, an da gure bertsolaria. Irurogeigarren urte aietan bertsolari xearen doiñu berezia txit ezaguna zen gure errietan, lekuko entzuleen belarrietan.

Bertsolariak ez ziren gutxi, baiñan Basarri eta Uztapidek bikote apartekoa osatzen zuten. Biak beti leiaketan entzuleen pozgarri eta biak beti benetan anaikor. Basarri eta Uztapide txapeldun izanak amar-urte auetan. Uztapide joan zitzaigun eta Basarri adiskidea bizi dedilla luzaro.

Bertsolariak festara garamazki, eta festak ez du urrun erri-kirola, urte aietan garrantzi txikia ez zuana. Arrijasotzaille eta aizkolari iaioak eta korrikalari trebeak, gure errietako ikuslekuak gaiñezka edo leporaiño betetzen zituztenak.

Jarrai dezagun. Ez zait aaztuko Tolosan antolatu genduen Lizardiren omenaldia, euskal kulturaren aldeko ekintza benetan interesgarria. Antzokian ekintza akademikoa eta zezen-plaza, gure lurralde guztietako dantzariekin, zearo beteta. Jaialdi ura, bere mailan guda ondorengo aurrenekoa, 1961. maiatzean izan zen, aztu-eziñeko adiskidea izan genduan Koldo Mitxelenaren itzaldiak asiera emanaz. Zerbait leentxeago, goratzarrearen sarrera antzera, Tolosa zarreko Agintari izena daraman kale estu eta kondairatsuko areto baten, giro abegikor gogorarazle barnean, Orixeren mintzaldia. Neguaren biotzean illunabarra zen, Santa Ageda bezperako illunabar otza, gu itzaldiaren lekuko eta kaleko abesti-taldeentzule.

Aipatua dugun antzokiko ekitaldian Orixe partaide eta saridun gertatu zen. Berak, jendaurreko azken aurkezpena izan zuan, andik illabete gutxitara betiko izkutatu bai zitzaigun orexar idazle eta itzultzaille ospetsua. Orixe il zen; baiñan


ez aaztu. Andik bi urtetara, 1963 garrenean ain zuzen, Tolosan eskaiñi zitzaion il-gerozko omenaldia, ospe aunditan.

Urte aietan gizarte-auzi maillan langille-elkarteak indartzen zijoazten. Ezta baidak asiak ziren 1947. urtezkerok; baiñan guretzat interesgarria dan amarkada ontan ugaritzen joan ziren, eta partaide eta susmoz kutsutuak espeteratu eta zigortuak kupidarik gabe. Gogoratu dezagun emen 1970eko greba orokorra. Au politika arazoak sortuarazi zun, Burgosko Epaiaketa izenarekin kondairara igaro denak, ain zuzen. Gertaera gogoangarri onek politika barnean erri-borrokara garamazki. Urte aietan politika arazo geroz eta geiago nabaritzen joan zen eta gazte abertzale batzuen ekintza gogortu egin zen: lergaillunak an eta emen, odol-ixurketa, espeteak berriro betetzen, eta atzera erbestera bidea ikasi bearra. Ezin uka Erria egoera berri baten aurrean arkitzen zela.

Bestalde, amarkada ontan apaizgaitegiak arintzen asiak ziren, elizgizonak sekularitzen eta betidanik ezagututako gure erretoretxeak, batez ere erri koskorretako erretoretxeak, ustutzen asi ziren, komundade txiki auen gogo-bizkeraren oiturak eta izate bera ere ez gutxi aldatuaz, gizartea orokorrean ikusita. Emen ere ezin uka Erria egoera berri baten aurrean arkitzen zela.

Argazki-bilduma interesgarri eta baliotsu oni ikusi bat ematean pelikula bat igarotzen zaigu begien aurrean, eta orrela oroimenean loakartuta dakuskigun goraberak berbizen. Irudimena egaldatzen zaigu bat-batean joan ziren urte aietara. Batzuek bere garaiean entzundako gertaerak, beste batzuek, berriz, urrun xamarretik ikusiak edo urbilletik bizituak. Mota askotako gertakizunak, atsegiñezkoen inguruan goibel eta zoritxarrekoak; azken auek nai baiño geiagotan. Gauzak onala dire. Orain arte adierazitakoa antzeko beste itz batzuekin errepikatuko det. Bilduma eder au osatzen duten argazkiak ikusiaz eta beraiei dagozkien argazki-oin aberas eta jakingarriz ornituak irakurriaz, garaiean garaieko gora-berak eta gertakariak oroitu eta berbizteko aukera ezinobeia izan dugu.

Maixutasun aparta bear du argazki-bildumatzailleak gizon eta emakumeen ainbeste urtetako poz eta tristurak, itxaropen eta etsipenak, aunditasun eta txikikeriak, sorta trinko eta ongi aukeratuan ikusle-irakurleari eskaintzeko, iragane-ko une bakoitzaren pilpira bere sakonera guztian sentieraziz. *Oroitzapena bizi.*



Hitzaurrea : Oroitzapena bizi / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Argazkiak = Fotografias T. V : Gipuzkoa - Donostia, 1961-1970.* - Donostia-San Sebastián : Gipuzkoa Donostia Kutxa, 1990. - 352 p. : il. ; 30 cm. - P. XIV-XV. - ISBN: 84-7173-55-X